

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ANUNTZETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Kontzejuaren erabakiak, ezponda zati bat besterentzeko, finka mugakideari eransteko

Kontzejuak 2020ko uztailaren 5ean egindako bilkuran hartutako erabakia betetzeko, zeinaren bidez onartu baitzen Salomon Monzonen jabetzako 964 lurzatiaren hegoaldean dagoen ezpondako 15 m² lagatzea (eskabidean jasotako planoen arabera), beharrezkoa da lursail zati hori bereiztea, besterentzea eta ondoren 964 lurzatiari eranstea notario eskrituraren bidez, Jabetza Erregistroan inskriba dadin.

Lursailaren zati hori besterentzeko, Anuntzetako Administrazio Batzarrak onetsi du, 2020ko azaroaren 15ean egindako kontzejuan, bertaratutako kideen 2/3 baino gehiagoko gehiengoarekin, lehenik, ezpondaren kalifikazio juridikoa erabilera edo zerbitzu publikoko ondasunetik ondare ondasunera aldatzea, eta, bigarrenik, 964 finka mugakideari gehituko zaion lurzattia soberako lurzati sailkatzea.

Laburbilduz, adierazitako bi kontzejuetan hartutako erabakiak, bertaratutako kideen 2/3 baino gehiagoko gehiengoz onetsiak, hauek dira:

- Salomon Monzonen jabetzako 964 lurzatiaren hegoaldeko 15 m²-ko ezponda besterentzea. Azalera hori egungo lurzatiatik bereiziko da, finka mugakideari eransteko.
- Onestea ezpondaren kalifikazio juridikoa erabilera edo zerbitzu publikoko ondasunetik ondare ondasunera aldatzea.
- Bereizi eta 964 finka mugakideari erantsiko zaion 15 m²-ko lurzattia soberako lurzati adieraztea.

Erabaki horiek ALHAOn argitaratuko dira, horien berri emateko eta izan daitezkeen alegazioei erantzun ahal izateko.

Anuntzeta, 2020ko azaroaren 23a

Administrazio Batzarreko lehendakaria
IÑAKI GUINEA LATORRE